

UDINE

LEKUA

Iparraldeko Italiak dituen paisaiak ikaragarriak dira; mendiak (dolomitak), ibaiak, edota aintzirak daude, eta bisita merezi du pilo bat. Eskiatzera joateko intentzioa baduzu ere aukera dago oso urrutira joan gabe. Gauza guzti hauek ikusteko erosoena kotxe bat izatea da, baino alkilerra agian ez da aukerarik onena prezio aldetik. Nire kasuan, nire zonaldeko jendea ezagutu eta gero, gabonak ondoren aukeratu genuen kotxez joatea. Road trip bat bezala da eta asko gustatu zitzaigun erdian dauden lekuetatik gelditzea eta bisitatzea, eta 50-60 euro kostatu zitzaigun gasoil eta peaje eta guzti. Gomendatzen dut ahal baduzu eta 3-4 lagun bildu ahal bazarete kotxez joatea.

KURTSOA

Ezaguna da Erasmuseko kurtsoa ateratzea errazagoa dela, baina nire kasuan ez zen hain literala izan. Agian kurtsoan zehar ez daramazu hainbat konstantzia baino nik azkenengo bi hilabetetan nahiko ikasi behar izan nuen. Bestalde, beste hainbat lagun errazago izan zuten, beraz suposatzen dut ikasgaia eta bereziki graduaren arabera izango dela.

AISIALDIA

Italiako iparraldea ezaguna da nahiko hotza izateagatik, eta ez soilik temperatura aldetik. Festa bilatzen baduzu nahiko aproposagoa da hegoaldea. Hala ere, erasmusen zaude, beraz hainbeste festa ez badago zuk zeuk bilatu edo egingo duzu. Oso oso zaila da norabait joatea erasmusen eta nahi izanez gero festa ez aurkitzea. Nire kasuan gomendatzen dut asteazkenetan Pinochio-ra joatea, ESN txartelarekin deskontua izanda, eta asteburutan, Krepapelle, Morenita edo Five diskotekak.